

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko apirilaren 17an hartutako erabakiaren laburpena: Deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko 2026rako deialdia eta oinarriak onestea

BDNS(Identif.): 905090.

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/905090>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Merkataritza-jarduera bat egiten duten enpresa pribatuak, edozein forma juridikoa dutela ere, egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen badute, eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak zuzenean Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako zentzoren batean egiten badituzte. Horrez gain, eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik balio osoz eratuta egotea, eskabidea tramitzeko prozesu osoan (aurkeztean, ebaztean, obligazioa onartzean eta ordaintzean) EJZn izena emanda egon behar dute, egunean izan behar dituzte betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak, eta, azkenik, enpresa txiki edo mikroenpresa izateko eskakizunak eskabidea aurkezten den unean, hots: 50 soldatapeko baino gutxiago izatea eta 10 milioi eurotik beherako negozio bolumena edo balantze orokorra izatea, urtean.

Laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza izango da 10. oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazio guztia aurkeztea.

Berariaz baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkartek, lanbide-elkargoak eta abar). Kanpoan geratzen dira, halaber, jarduera nagusizat energia elektrikoa edo termikoa sortzea edo banatzea duten enpresak, beste enpresa edo erakunde batzuei energia aurrezteko eta efizientzia lortzeko irtenbideak eskaintzea jarduera nagusizat duten energia-zerbitzueta enpresak, eta armak eta material militarra fabrikatzen, merkaturatzen edo finantzatzen diharduten enpresak.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko enpresek deskarbonizazio-jarduketak ezartzeko laguntzak emateko baldintzak ezartzea; norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena baliatuko da horretarako.

Bost ardatz handitan biltzen dira diruz lagun daitezkeen jarduerak: energia-konsumoa murriztea, energia-kudeaketa, trantsizio energetikoa, naturan oinarritutako soluzioak eta mugikortasun ja-sangarria.

A. Kontsumoa murriztea: industria-jardueraren energia-kontsumoa murrizten duten jarduketak, hauen bitartez: prozesuak hobetzea, ekipoak ordezte, beroa berreskuratzea, eraikinak egokitzea eta/edo argiztapena berritzea.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

A.1. Makineria ordezte.

A.2. Industria-prozesuetan beroa berreskuratzeko sistemak.

A.3. Eraikinaren egokitzapen termikoa.

A.4. Argiztapen- eta kontrol-sistemak berritzea teknologia eraginkorraren bidez.

B. Energia-kudeaketa: energia kudeatzeko sistemak eta tresnak ezartzea, kontsumoa optimizatzeko, efizientzia operatiboa hobetzeko eta etengabeko hobekuntza sustatzeko, zeharka emisioak murrizten lagunduz eta enpresen barne-gaitasuna indartuz.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

B.1. Optimizazio energetikoko sistemak.

B.2. Energia kudeatzeko sistemak ezartzea (ISO 50001).

C. Trantsizio energetikoa: industria-instalazioetan erregai fosilen erabilera murriztera eta energia berriztagarrien erabilera sustatzera bideratutako jarduketak, industria-jarduera deskarbonizatzen laguntzeko.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

C.1. Amiantodun estalkiak kentzea.

C.2. Klimatizazio- eta hozte-sistemak alternatiba jasangarriekin ordezkatzeta.

C.3. Energia berriztagarriak prozesu termikoetan integratzea.

D. Naturan oinarritutako soluzioak ezartzea: naturan oinarritutako soluzioak ezartzea eta mantentzea, klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzeko eta onura ekosistemiko eta sozial garrantzitsuak sortzeko.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

D.1. Landarezko estalkiak ezartzea.

D.2. DJSU bidezko aparkaleku iragazkorak instalatzea.

D.3. Itxitura naturalak instalatzea.

E. Mugikortasun jasangarria: mugikortasun elektriko arina sustatzeko jarduketak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (MPI) eta bizikleta elektrikoak (enpresarenak zein langileenak) modu seguruan kargatu eta gorde ahal izateko azpiegituren bidez, garraio jasangarriaren erabilera sustatuz.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

E.1. Eguzki-panelak dituen aparkalekuak instalatzea, MPlak kargatzeko puntuak eta bizikleta elektrikoak dituztenak

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 17an onetsi zituen deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak 2026. urterako.

Deialdia zein oinarriak udalaren webgunean daude, ikusi nahi izanez gero (www.vitoria-gasteiz.org), eta baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honek 550.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuan erabilgarri dagoen 0821.4331.47142 partidaren kontura (Enpresentzako laguntzak, deskarbonizazioa eta jasangarritasuna).

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Hortaz, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 65 izango da (3. oinarrian adieraziak), puntuazio handiena duten proiektuen kasuan; ehuneko 35, gutxienez 25 puntu lortu dituztenen kasuan; eta tarteko ehuneko bat, proportzio linealean, tarteko puntuazioa duten proiektuen kasuan. Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 40.000,00 eurokoa izango da.

Aurkeztutako proiektuek laguntzeko moduko 6.000,00 euroko inbertsioa izan beharko dute gutxienez, eta zenbateko hori eskabide berean jasotako jarduketa baten edo batzuen bidez lortu ahal izango da.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua ahitu arte.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik 2026ko irailaren 18ra arte (egun hori barne).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 17a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ